

Laguntza etsaiari

Euskaldunon Egunkaria, 1992-07-07: 2.

Gipuzkoako Diputazioan euskara arduradun den Maria Jesus Aranburuk esan dituen hitz batzu harritu naute. Aldundiak joan den ostegunean, uztailak 2. Zumarragako Batzar Nagusiaren gehiengoaz EGUNKARIAri 50 milioi pezetako laguntza ematea erabaki zuenean, prentsa aurrean idazkin hau egin zuen: diru emate hori "adiskideek adiskidei emandako propina" izan dela. Bat, nola izan daiteke "propina" gehiengoaren legez Gipuzkoako Batzar Nagusiak erabakitakoa?; bi, nola ez gara, bada, adiskideak izango euskal egunkaria egiten ari garen langile euskaldunok? (hemen pena handia ematen duena zera da, gure aurrean arerio bezala geratu diren Eusko Alderdi Jeltzale eta Partido Sozialista Obrero Españoleko sozialistak elkarrekin egotea!), eta hiru, Gipuzkoako Diputazioan minoria osatzen duten bi alderdiek agintzen egotea! zeren eta kasu honetan bai, esan genezake egia osoz, adiskideek adiskidei euskararen kontra botoak ematea izan dela. Gero, Aranburu andereñoak nolabaiteko lekzio bat ere eman digu egunkari euskalduna egiten ari garenoi: "Plangintza zehatz bat egin gabe" irten omen gara. Denok dakigunez, geure planak erakutsi genituen argi asko orain bi urte eta hemen irten ez dena, zaldiak irteerako atean planto eginda geratzen den moduan, dirudote eta guzti iragarrita zegoen beste egunkaria da. Badakigu hau ez dela Maria Jesusen erruz gertatu, Jaurlearitzan agintzen dauden EAJ-PSOEkoen eraginez baino; hauek dira egiazko jarrerik erakutsi ez dutenak. Nondik nora datorkigu, bada, Gipuzkoako Diputazioan agintzen dauden bi alderdien izenean jadanik urte t'erdikalean daukagun EUSKALDUNON EGUNKARIA arrazoi hoberik gabe kritikatzera? Egunkari euskalduna orriz eta gaiez osoagoa egiteko zerbait falta bazaigu, orain arte erderazko egunkariei bakarrik ematen dien publizitate dirua guri, etsaiari, ukatzen zaigulako da.